



Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Proportzionaltasuna – Buruketak	Data:

OHARRA: Prozedura argi eta garbi egotea derrigorrezkoa da.

- 1) **90 km**-ko ibilbide batean, automobil batek **6 litro** gasolina kontsumitu ditu.



- a) Zenbat **litro** kontsumituko ditu **120 km**-ko ibilbide batean?

_____ litro kontsumituko ditu.

- 2) Beñatek **30 €** ordaindu zuen **20 kg** madariren truke.



- a) **39 €** ordaintzen baditu, **zenbat kilo** erosiko ditu?

_____ kilo erosiko ditu.

- 3) Batez beste **120 km/h** abiadura daraman tren batek **4 ordu** behar ditu ibilbide jakin bat egiteko.



- a) Zenbat **ordu** beharko luke distantzia bera egiteko, batez beste **160 km/h** abiaduran joango balitz?

_____ ordu beharko lituzke.



Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Proportzionaltasuna – Buruketak	Data:

- 4) DBH 2. mailako ikasleek horma-irudi bat egingo dute patioko paretan. **5 ikasle** egunero **2 ordu** lan eginda **8 egun** beharko dituzte murla amaitzeko.



- a) Egunero **4 ordu** lan eginda, zenbat ikasle beharko dira murla **5 egun**etan amaitzeko ? _____ **ikasle** beharko dira.
- b) Adierazi (grafikoan) proportzionaltasun motak.



- 5) Josu irteera bat prestatzen ari da bere lagunekin. **5 lagun** baldin badoaz eta **20 kilo** janarirekin **10 egun** igarotzeko adina izango dute.

- a) Zenbat **kilo** janari beharko dituzte **8 lagunek 20 egun** igarotzeko? _____ kilo.
- b) Adierazi grafikoan proportzionaltasun motak.

